



FUNTSEZKO SOZietATEAK - ALIANTZAK - ELKARTEAK

Arima Jantzirentzat bere zerbitzuak garrantzitsuak dira, batez ere, pertsonen egunerokoa errazagoa eta duinagoa bihurtzen dutelako. Askotan ez gara ohartzen jantzea bezalako keinu txiki batek zenbat zailtasun eragin ditzakeen mugikortasun murriztua edo desgaitasuna duten pertsonentzat. Guk, ordea, hori ikusita, argi izan dugu: inork ez luke sufritu beharko bere neurrira eta beharretara egokitutako arropa ez izateagatik, ezta norbaiten menpe egon behar bere egunerokoa aurrera egiteko.

Horregatik, guretzako proiektu honek badu alde emozional eta pertsonal bat. Gustatuko litzaiguke jendea bere kabuz, bere erritmoa eta berarentzat egindako arroparekin jantzi ahal izatea, presarik gabe, minik edo urduritasunik gabe, eta batez ere, bere buruarengan konfiantza sentituz. Arropa pertsonalizatua ez da soilik jantzi bat, baizik eta tresna txiki bat izan behar du, pertsona bati egunerokoa errazagoa egiten diona.

Funtsezko bazkide motak: gure arropa pertsonalizatuaren proiektuaren funtzionamendurako, bi bazkide mota nagusi finkatu ditugu: ekoizpeneko edo hornidura estrategikoko bazkideak eta logistika-bazkideak.

Ekoizpeneko edo hornidura estrategikoko bazkideak: bazkide hauek arropa fabrikak, moda-eta jostintza-tailerrak eta pertsonalizazio-zerbitzu espezializatuak (bordatuak, itxiera bereziak, egokitzen teknikoak...) hartzen dituzte barne. Haien bidez, eskaera bakoitza banaka eta neurrira ekoiztea posible da, produktuaren kalitatea, ekoizpen-denboren kontrola eta prezio egonkorak bermatuz. Bazkide hauek funtsezkoak dira, serieko produkzioerik gabe lan egiten dugulako.

Logistika-bazkideak: mezularitza eta garraio-enpresak hartzen dituzte barne, baita kanpoko biltegi txikiak eta pertsonalizatutako "fulfillment" zerbitzuak ere. Haien helburua da eskaera bakoitza banaka kudeatzea, online zein aurrez aurreko salmentetatik abiatuta, eta bezeroarengana modu eraginkor eta seguruan iristea.

Hornitzaile osagarriak (material pertsonalizatuak lortzeko): zenbait hornitzailek lagunduko digute gure dendarako beharrezkoak diren material espezifikoak eta kalitate handiko ehunak lortzen, eskaera bakoitzaren beharretara egokituta. Adibidez:

- Tavex-Algodonera S.A.
- Inquitex, S.A.

Hornitzaile hauek funtsezkoak dira pertsonalizazio-maila altua eta produktuaren kalitatea bermatzeko. Eta gure bezeroengana iristeko inguruko fisioekin eta erresidentzia batzuekin kolaboratu dezakegu.

Langileen kontrataziorako enpresak: gure denda handitzen bada eta eskaera pertsonalizatuen bolumena handitzen bada, langile gehiago beharko ditugu. Horretarako, pertsonalizazioan, bezero-arretan edo joskintzan esperientzia duten profesionalak aurkitzeko lanbide-enpresetara joko dugu, adibidez:

- Synergie
- Jobslooker
- Bilbao Ekintza
- Tokiko hornitzaileekin lan egitea:
(Jantzi sinpleak egiteko joskintza tailerrekin lan egitea, Diseinatzaile lokalak bilduma arropa inklusibo txikiak egitea, edo bertako dendekin lan egitea...)

Laguntza eta aholkularitza-sareak: gainera, gure dendak hainbat laguntza jaso ditzake osasun-zentro, fisioterapeuta eta gizarte-zerbitzuetatik, aholku profesionalak eskain ditzaketelako gure arropa pertsonalizatua hobetzeko eta benetako beharretara egokitzeko.

***fulfillment:** Bezeroaren eskaera jasotzetik azken entregara hartzen duen prozesua da.